

ERREMENTARIEN SOIÑEKOAK

Eibar'en jaio ta Markiña'n ildako Juan Antonio Mogel eta Urkiza idazleak, Euzkadiko burdin-ola bateko oiturak zeat idatzi ebazan, bere bizkaierazko eta Durango'n argitaratuko Peru Abarka idazti jakintsuan.

«Kapela igartu ta erdikin bat buruban, zapi kedartu bat bekoki erdiraiño izerdia artu ta subaren berotasuna arinduteko. Ola-atorra, arkondara utsa idu-nean lotuba; ezta zer eskatu jakerik, ez kaltzerdi, ez abarka, ezta prakarik be. Oera etzuteko ta jagiteko eztaukie nekerik zer-artu.»

* * *

Beste XVIII gizaldiko idazle batek olaigozen oiturak zeintzuk eta zelangoak izaten ziran, diñosku:



«Ikusi eztabenak arrituko neukez, baita bildurtuko leukez ikustekak iketzaz erretako beterik dagoan sutegi ta auspo aundiak sua ixiotuteko pafadak uraz noizean bein zipritunduta. Ikustekoa lau olagizon obrera esaten jakon ator luzeekin estaldurik idunetik oñetaraño, ikatz-auts ta kedarez arpegia, beso ta oiñak estalduta; kapel zikin koipetsuaz, ta barruan tximen belarrikoekin, baltzituta, izerdi ta auts deabruak berberak dirudie. Ikuspen orreikaz ikusle bariak zorabiraturik geratzen dira, batez be gabean sartu ezkerro, zarata aundiago ta sua be geiago ta olagizonak ikaragarriagoak ikusita; eta ikusle da-

nak bildurrezko bellegiz sutegiko sugarrak argi motela egitean.»

Olerkari, idazle, Bizkai-Jaunerriko edeslari Trueba'tar Anton'ek XV mendeko ipuin edo edesti baten bidez inoan ola-gizonak zelan lanerako erabilten eben eun gordinezko arkondarea, idunetik oiñetaraño guztiz ostenduten ebazana eta zelan ikatz baltz eta izerdi askoz urturikoak olagizon arein arpegia ta begitarte moztu ta itxura-aldatzen zituan.

Euskalerriko burdin-olak XIV gizaldian Europa'ko errietakoak baiño eunkida bi lenago uren indarra erabilten ekien.

1338'an Naparra'ko Erregeak 28 burdin -ola eukazan. Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n bietakoak batu ezkerro, XVI mendean 300 baiño geiago ziran, eta euretan egindako burdiña Erdi-Ugarteko beste lurretara, Prantzia'ra, Flan-des'era, Italia'ra, Sizilia'ra, Asia'ra ta Ameriketara eroetan eben, gaurko kondaira-zaleak diñoenez.

* * *

Juan E. Delmas'ek 1860'an, margoztuten eban burdin-ola euskaldun bateko txingar-autsean polito erdierreta, makillan etxunda olagizona.

Erri aundi bateko erakus-toki edo Museoan ikusten doguz olagizonak euren lanerako erabilten zituen tresnak eta soiñekoak.

Margolarientzat balio gitxikoak izango dira, baiña antiñako burdin-oletan zelango soiñekoak, langaiak, zelako bizibidea egoan jakiteko egokiak dira.

Burdiña egiten eben burdin-ola jator eta berarizko arein orde, orain Ian on egiteko burdingintza aundiak sortu dira.

* * *

Burdiñearenagaz batera beste langintza batzuk be bagozan: ainguren egintza, itxasontzietarako tresnak, suzko izkilluak...

Burdin-Olako mailluen danbada-ostean, lurrun-makiñadun trena etorren.